

Zaldien ostikopetan

Igor Estankona

"Zalditeria Gorria"

Isaak Babel

euskaratzailea: Olga Mtz. de Marigorta / Roberto Serrano

Alberdania / Elkar, 2006

Hogeita hamarreko hamarkadan Isaak Babelen liburuak amusez irakurtzen zituzten: Sobiet Batasuneko idazle ezagunenetakoa zen. Orain "Zalditeria Gorria" har dezakegu guk, euskaraz, eta gozatu. Literatura Unibertsala sailean dago, Olga Mtz. de Marigorta eta Roberto Serranok itzuli dute. "Zalditeria Gorria" autobiografikoa da hein batean, Babel Armada Gorri gazteko zalditerian ibili baitzen Poloniaren kontrako gerran, hogeigarren hamarkadan. Nekea, izerdia, miseria... jaio berri zen mundu sozialista bere buruaren defentsan aritu behar izan zen lehen minututik. Nekazari zaporeko ipuinak dira, pinturaren lirdingadunak, baina batez ere odol usainekoak.

Isaak Babel Odesan jaio zen 1894an, Ukrainako familia judu batean. 1917ko iraultza boltxebikea baino lehen idatzi zuen zeozertxo, eta Gorki aitabitxi literarioa izan zuen kasik. "Odesako ipuinen" entzutea izango duzu, irakurle, beharbada. Itsaso beltza eta gaztetasuna biltzen zituzten. Baina "Zalditeria Gorria" (1926) honetako ipuinak ere itzelak dira, narrazio laburrak zertzeko Babelek zeukan berezko dotoreziaren adibide.

Sobietar sistema Stalinen inguruan bildu ahala, ostera, kritikak sortu ziren Babelen lanaren gainean: dialektika marxista alde batera uztea eta armada gorriaren irudi eskasa zabaltzea leporatu zioten. 1939an polizia sekretuak etxean zelarik atxilotu zuen idazlea. Komunista leiala izaten jarraitzen zuen edo komunista leiala izana zen —eta orain traidorea— gutxienezkoa zen. Sorgin-ehizaren erdian harrapatu zuten. Fusilatu egin zuten, eta 1954an birgaitu, izotzak urtu zirenean.

Babelen liburu honetan erretratu ederrak aurkituko dituzu. Hitza pintzela bezala erabiliz, nekazariak, gudariak, zaldiak, pintoreak... dakartza orrialdeetara. Estiloa arteza da —sobietar idazle askok duten hizkera zuzen eta eder bera—, baina ez dio uko egiten umoreari eta xamurtasunari. Mikaztasuna eta sufrimendua gozotasun bihur badaitezkeen jakin nahi baduzu, igo zaitetz zalditeria gorri honen gainera.

Deia, 2007-03-09